

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Mari Bernaola Artetxe

*Orozko, Bizkaia
(1944)*

Aurkibidea



Biografia



Orozkoko Olabarriandikoa baserrian jaio eta hazi zen. Aita ere bertakoa zuen eta ama Zeberion jaioa, baina Zollon bizi izandakoa. Umetatik izan zuen baserriarekiko lotura eta bertan jaso zituen aiton-amonengandik aintzinako kontu eta ipuinen berri, kultur-transmisioa gauzatuz. Eskola bukatu ostean, 14 urterekin Laudiora joan zen 17rekin Gasteizera joan aurretik. Gasteizen serigrafia-tailer batean bi urtez aritu ostean, Carrión musika-denda ezagunean aritu zen 3 urtez instrumentuak konpontzen zein saltzen. Azkenik, 38 urtez aritu zen Beyena esnetegian beharrean. Elkarrizketa egin zitzaion garaian, ikastetxez ikastetxe zebilen umeak bere ipuinekin liluratzen ipuin-kontalari bezala. Guk ere jaso ditugu ipuin horiek, baserriko-tresnei buruzko ezagutzeekin batera. 20 urte inguru zituela Arrigorriagara joan zen bizitzera. Berba egiterakoan euskara batuaren eragina du; hala ere, jaioterriko euskara bizi-bizi darabil.

Zintak

ORO-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-11-23
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ORO-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-11-23

- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ORO-012

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Data:** 2013-10-18
- **Iraupena:** 120 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Bernaola Artetxe, Jesus Mari | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com